

IES ZUBIRI-MANTEO BHI

Donostia-San Sebastián



Donostiako Zubiri-Manteo Institutuak podcast-lehiaketa antolatu du ikasleentzat

El Instituto Zubiri-Manteo de Donostia organiza un concurso de podcast para el alumnado

Teknologia berrien erabilera sustatzeko eta adierazpen modu berri-berri bat hedatzeko helburuarekin, Donostiako Zubiri-Mateo BHIaren informatika departamentuak podcast-lehiaketa bat proposatu die bere ikasle guztiei.

Zer da podcasta?

Literalki, termino hori kapsulak hedatu itzuli daiteke, eta audio-fitxategi bat erabiliz Internet bitartez komunikatzeko modua da. Gehiago zehaztuz, esan dezakegu Applen iPodak ez dela podcasta, ezta aurrez grabaturiko irratsaioa; ez da musika banatzea, ezta web orriari soinu-fitxategia jartzea.

Komunikazio modu guztietan bezala, igorlea, mezua eta hartzailea izan behar ditu. Igorleak mezua ordenagailuan grabatzen du, eta mp3 formatuko fitxategi bihurtzen. Hainbat eratako informazioa izan dezake mezua: iritziak, sukaldeko errezetak, poesiak, eskola magistralak...

Hedatzeko, fitxategia etiketa batekin identifikatzen eta Interneten jartzen du igorleak, web orri pertsonal edo podcast-zerbitzari baten.

Hartzaileak mezua entzuteko hainbat aukera ditu: weba bisitatu eta fitxategia jaitsi, linea bidez zuzenean entzun edo fitxategiak automatikoki jaisten dituen berriarazko tresna bat erabili.

Tresna hori posta elektronikoko programen antzekoa da, eta podcastak argitaratuko diren helbideak erregistratzen ditu. Igorleak mezu berri bat jartzen duenean, programak hartzaileari jakinarazten dio eta horrek automatikoki jasotzen du mezua.

Teknika horren bitartez Interneten albistegiak, blogak edo informazio meteorologikoa argitaratu daitezke.

Dituen ezaugarriak direla medio, hedabide horrek hainbat abantaila ditu, web orriekin alderatuz gero, esaterako. Dagoeneko gure inguruan ohiko tresnak dira mp3 edo mp4 irakurgailuak, eta horiek podcastak ordenagailuetara bidaltzeko eta edozein momentutan entzuteko aukera eskaintzen digute, zatika hainbat saiotan edo errepikatuta nahi beste alditan.

Lehiaketaren ezaugarriak

Lehiaketan parte hartzeko, ordenagailua, mikrofonoa eta Interneteko konexioa besterik ez da behar.

Mezua grabatzea ez da batere zaila teknika aldetik. Grabatzeko programa baten bitartez –Audacity da erabiliena eta doakoa da– mezua gorde eta aldaketak egiten zaizkio, musika eta soinu-efektua batzuk erantsi, nahi den emaitza lortu arte.

Ikasleek informazio bildu behar dute aurrez, mezu bat edo gehiago sortu, edozein gai aukeratuz, eta Informatika Departamentuko posta elektronikora bidali. Departamentu hori arduratuko da horiek Interneten jartzea.

Bidaltzeko epea maiatzaren 25ean amaituko da, eta egun horretan ebaluatuko dira podcastak. Soinuaren kalitateari baino garrantzi gehiago emango zaio mezuaren edukari eta hori kontatzeko moduari. Sariak informatikako materialak izango dira.

Con el objetivo de impulsar el uso de las nuevas tecnologías y difundir una novísima forma de expresión, el Departamento de Informática del IES Zubiri-Manteo de Donostia-San Sebastián ha planteado a todos sus alumnos un concurso de podcast.

¿Qué es un podcast?

Literalmente, el término se podría traducir como difundir cápsulas y es una manera de comunicarse a través de Internet por medio de un archivo de audio. Concretando más, se puede decir que no es podcast: no es el iPod de Apple, ni radio en diferido; no es la distribución de música, ni colocar un archivo de sonido en una página web.

Como en toda forma de comunicación, ha de haber un emisor, un mensaje y un receptor. El emisor graba el mensaje en el ordenador y lo convierte en un archivo con formato mp3. El mensaje puede contener información de diferentes características: opiniones, recetas culinarias, poesías, clases magistrales,...

Para difundirlo, el emisor identifica al archivo con una etiqueta y lo coloca en Internet, en una página personal o en un servidor de podcast.

El receptor tiene varias posibilidades para escuchar el mensaje: visitar la web y descargarlo, escucharlo directamente on-line o usar una herramienta específica que los descargue automáticamente.

Esta herramienta es parecida a un programa de correo electrónico en el cual se registran las direcciones donde se publican los podcast. Cuando el emisor coloca un nuevo mensaje, el programa avisa al receptor y le permite obtenerlo automáticamente.

Por medio de esta técnica se publican en Internet boletines de noticias, blogs o información meteorológica.

Las características de este medio de fusión suponen una ventaja, con respecto a las webs, por ejemplo. Los reproductores de mp3 o mp4 son ya herramientas habituales de nuestro entorno y nos permiten traspasar del ordenador los podcast y escucharlos en cualquier momento, por partes en varias sesiones, o en repetidas ocasiones.

Características del concurso

Para tomar parte en el concurso, sólo se necesita un ordenador, un micrófono y una conexión a Internet.

El proceso de grabación del mensaje no es técnicamente nada complejo. Por medio de un programa de grabación (Audacity es el más utilizado y es gratuito) se registra el mensaje y se puede modificar, añadiéndole música y otros efectos sonoros, hasta lograr el resultado deseado.

Los alumnos deben documentarse un poco, crear uno o varios mensajes, de temática libre, y enviarlos a una dirección de correo electrónico del Departamento de Informática, quien se encargará de colocarlos en Internet.

El plazo de envío finaliza el 25 de mayo, fecha en la cual se evaluarán los podcast, valorando más el contenido del mensaje y la manera de contarlo que su calidad sonora. Los premios consistirán en material informático.